
LAN
HARREMANEN
KONTSEILUA
CONSEJO DE
RELACIONES
LABORALES



PRECO – LAN GATAZKAK EBAZTEKO BORONDATEZKO PROZEDUREI BURUZKO LANBIDE ARTEKO AKORDIOA

**(2000.02.16an sinatu zen eta 2000.04.4an EHAA
argitaratu. Testu honek arau osagarriak ere badakartza)**

HITZAURREA

AKORDIOKO XEDAPEN OROKORRAK

1. Akordioaren gaia; 2. Lurralde-eremua; 3. Izaera eta pertsona-eremua; 4. Denbora-eremua; 5. Akordioko batzorde paritarioa; 6. Arau bereziak.

PROZEDUREN GAINEKO XEDAPEN OROKORRAK

7. Prozedura motak; 8. Prozeduraren gaiak; 9. Prozedurako alderdiak; 10. Auzibidera jo aurreko betekizuna betetzea; 11. Adiskidetzailleak, bitartekoak eta arbitroak; 12. Prozeduren kudeaketa.

PROZEDURAK HASTEKO ESKAERA

13. Hitzarmen edo akordio kolektiboetako batzorde paritarioen aurretiko jarduna; 14. Prozedurak hasteko eskaera.

PROZEDURAK ZELAN GAUZATU

15. Adiskidetzearen edo bitartekotzaren hasiera; 16. Bitartekotza bezala jarraitu beharra; 17. Arbitrajearen hasiera; 18. Adiskidetzaille, bitarteko edo arbitroaren izendapena; 19. Aholkulariak adiskidetze prozeduran; 20. Prozeduretako zereginak; 21. Jardunen gehienezko epeak.

PROZEDUREN AMAIERA

22. Bat etortzearen bidez amaitzea; 23. Adiskidetzearen amaiera; 24. Bitartekotzaren amaiera; 25. Arbitrajearen amaiera; 26. Arbitraje epaiaren aurreko barruko errekurtoa; 27. Bitartekotza proposamena eta arbitraje epaia edo ebazpena argitzea.

PROZEDUREN ONDORIOAK

28. Kontsultaldietako desadostasunak; 29. Gatazka ebazteko tresnen eraginkor- tasuna.

Xedapen gehigarria. Azken xedapena. Sexista ez den hizkera.

ERANSKINA: APLIKAZIO ARAUAK

1. Prozeduren kudeaketa. Lan Harremanen Kontseiluaren lurralde egoitzak
2. Eskaera orriaren edukia
3. Alderdi bakarreko interesatuen gehiengoa ordezkatzan dutenen borondatez burutzen den bitartekotza
4. Prozeduretako gehienezko epeak luzatu, laburtu eta etetea
5. Erakunde sinatzaileentzako informazioa
6. Egun baliiodunak
7. Adiskidetze saioaren garapena
8. Hitzarmen kolektiboek eurek dakartzaten prozedurak
- 9.- Hitzarmen kolektiboan ezarritako baldintzetan funtsezko aldaketei eta soldatak aplikatu ezinaren gaineko arbitrajei dagokienez, Langileen Estatutuko 85.3.c artikuluan oinarritutako hitzarmen kolektiboan klausulak aplikatzea.

10.- Kontsulta-epeetako ordezkapen-prozedurak praktikatzeko epeak.

11.- Pertsonalaren legezko ordezkariarik ez dela-eta, kontsulta-aldietarako ordezkariak espezifikoak.

12.- Elementu ekonomiko edo teknikodun gatazkei lotutako prozedurak praktikan jartzea.

13.- Afiliazioa egiaztatze prozedurak gauzatzea.

14. Hitzarmen kolektiboetako menpekotasun klausulen bidez ezarritako arbitrajeak.

**PRECOREN BATZORDE PARITARIOAK 2012KO URTARRILAREN 11KO
BILERAN HARTUTAKO ERABAKIA, PRECO ALDATZEKO,
HITZARMEN KOLEKTIBOAREN NEGOZIAZIOKO BLOKEOAGATIKO
ARBITRAJEEI BURUZKOA**

HITZAURREA

1984an laneko gatazkak ebazteko borondatezko prozeduren inguruko lehendabiziko akordioa sinatu zen Euskal Autonomia Erkidegoan. 1990ean bigarren akordioa sinatu zen. Bata zein bestea apostu sendoa izan ziren erakunde sindikalek eta enpresaburuen erakundeek ahalik eta autonomiarik handiena lor zezaten lan harremanen arloan. Asmoa zen elkarrizketa eta negoziazio kolektiboa tresna nagusi eta eraginkorra bihurtzea, bai harremanon edukia mamitzeko eta bai laneko gatazkak ebazteko ere, bereziki gatazka kolektiboak.

Lehen akordioan aurrerapauso nabarmena egin zen norabide bikoitz horretan, adiskidetze, bitartekotza eta arbitraje bideak ezarri baitziren gatazka kolektiboak ebazteko. Urrats hura, gainera, aukera horri batere laguntzen ez zion testuinguru sozial eta legalean egin zen.

1990an aurreneko esperientzia hori berritu zen, GEP II izenaren pean. Lehentxoago, Lan Prozedurari buruzko Legeak nolabaiteko onespena emana zien sistema hauei, eta erakunde sindikal eta enpresarialek honelako prozedurak adostearen aldeko iritzia zabaltzen hasi zen. Hala ere, gizartean oso aurrerapauso gutxi emanak ziren alde horretarantz.

Esperientzia aintzindari hauetatik abiatuta, aldaketa sakona gertatu zen, bai errealitate sozialean eta bai eremu legalean ere. 1994ko legeriaren erreformak behin betiko bultzada eman zion bitartekotza eta arbitrajeen erabilerari eta bide hauetaz baliatzea sustatu zuen.

Gaur egun egoera oso bestelakoa da. Gatazkak ebazteko prozedura autonomoak gure ingurune ia osoan daude ezarrita. Gainera, geure errealitatea ere nabarmen aldatu da: gure prozedurak erruz erabiltzen dira gatazka kolektiboetan eta oso harrera ona egiten zaie negoziazio kolektiboan. Horrek erakusten du sistema guztiz heldua eta finkatua dagoela, nahiz eta oraindik gordetzen dituen GEP II sinatu zen garaiko zenbait kautela.

Beraz, une egokia da testua berrikusi eta pauso berriak emateko.

Sistemaren heldutasunak bidea ematen digu legeak eskaintzen digun aukeraz baliatu eta geuk bakarrik eskuratzeko auzibidera jo aurreko betekizun bezala eskatzen den adiskidetzea, laneko gatazka kolektiboetara dagokienez. Horrela, orain arte egon den bide bikoitza desagertzen da, lehen aukera baitzegoen lan arloko agintariengana jotzeko helburu horietako. Interes publikoko gauza da erakunde sindikal eta enpresarialek euren burua gobernatzea gatazkak ebazterakoan, eta, ondorioz, komenigarria da eurek sortutako bideek ahalik eta neurri handiengan eurenaganatzea gatazka arazoak. Oraingo erabaki hau horren alde doa.

Bestalde, komenigarri ikusi da prozeduren arauak arintzea, prozedurok malguagoak eginez, gatazka bakoitzaren ezaugarrietara eta alderdien gurarietara egokitu daitezen. Era berean, Akordioko Batzorde Paritarioaren erabaki-irizpideak ere moldatu dira. Horrez gain, erantzuna eman zaie gatazka kolektiboak GEPeko prozeduren erabileren inguruan agerian jarritako zenbait premiari. Kontuan izanik GEPeko arauen eta hitzarmen kolektiboetako arauen interakzioa ezinbestekoa dela, Akordio berriak aukerak zabaltzen ditu hitzarmen kolektiboekin hobeto uztartzeko, eta aldi berean sendotu egiten du batzorde paritarioek izan behar duten lehentasuna, bai Akordio administrazioan eta bai eurotatik sortzen diren gatazkak ebazterakoan ere.

Joan den 1999. urtean ELA, Langile Komisioak, LAB, UGT eta CONFEBASK enpresaburuen erakundea helburuok lortzeko lanean aritu dira Lan Harremanen Kontseiluan. Ahalegindu dira, horrela, gure Autonomia Erkidegoko enpresaburu eta langileei eta euron ordezkarietara laneko gatazkak ebazteko sistema bat eskaintzen, oraingo errealitatera egokitzen den sistema, hain zuzen. Hartara, eurek ere lagundu dute gatazketako protagonisten arteko elkarriketa eta negoziazioa tresna nagusia izan daitezen gatazkek ebazteko eta gure lan harremanen sistema sendotzeko.

Hori guztia lortzeko, "GEP-Laneko gatazkak ebazteko borondatezko prozedurei buruzko Akordio" hau sinatzen dute Bilbon, bi milako otsailaren hamaseian.

AKORDIOKO XEDAPEN OROKORRAK

1. Akordioaren gaia

Akordio honen bidez, laneko gatazkak ebazteko orain arte indarrean egon den prozedura sistema eguneratuko da. Hemendik aurrera, akordioari "GEP" izena emango zaio.

2. Lurralde-eremua

Akordioa aplikatzeko eremua Euskal Autonomia Erkidegoa da. Eremu honetatik kanpoko gatazkak akordio honetako prozeduren bidez ebatzi ahal izango dira gatazkan zerikusia duten langileen eta enpresarien gehiengoa ordezkatzeko dutenek hala erabakitzen dutenean.

3. Izaera eta pertsona-eremua

Akordioak Langileen Estatutuko 83.3. artikuluan hartzen du babesa. Hartara, bere lurralde-eremuaren barruan eraginkortasuna dauka enpresari eta langile guztiengan, euren ordezkari guztiengan eta sindikatu eta enpresari elkarte guztiengan ere.

4. Denbora-eremua

Akordioa denbora mugagabekoa da. Dokumentua sinatzen denetik hasita, lau urterik behin sinatzaileek Akordioara amaiera iragarri ahal izango dute sei hilabeteko aurretiaz. Amaitu eta gero ere, Akordioak eragina izaten jarraituko du beste akordio batek haren lekua hartzen duen arte. Akordio berria indarrean jarri baino lehen hasi diren prozedurak aurreko akordioko arauen bidez bideratuko dira.

5. Akordioko batzorde paritarioa

Batzorde paritario batek interpretatu eta aplikatuko du akordioa, bai eta berorren aplikazio arauak egin ere. Batzorde hori ELA, Langile Komisioak, LAB eta UGT sindikatuen ordezkarietara eta Confebask-en ordezkarietara osatuko dute. Gutxienez urtean behin bilduko da, eta alderdi bakoitzeko gehiengo osoaz hartuko ditu akordioak, salbu eta 6. eta 11.2. artikuluetan aipatutako kasuan, orduan ahobatez hartu beharko baititu. Gehiengoa, sindikatuen alderdian, Lan Harremanen Kontseiluaren ekainaren 27ko 11/1997 Legeko 8.3. artikuluan adierazitako irizpidearen arabera osatuko da.

Batzorde paritarioko edozein kidek eskatu ahal izango du azter dadila ea batzordera eramandako gairen bat akordioa interpretatze edo aplikatze hutsetik harago geratzen den ala ez. Halako kasuetan GEPeko hiru arbitroek aztertuko dute arazoa eta erabakiren bat hartuko dute ahalik eta lasterren. Arbitroek arbitraje prozedurako arbitraje epaimahaien erara izendatuko dira, eta euren moduan jokatu dute. Batzordeak gaia aztertu eta ebatziko du bakar-bakarrik arbitroek

adierazten badute arazoa ez doala akordioaren interpretatze eta aplikatze hutsetik harago.

6. Arau bereziak

Aurreko atalean sortutako batzorde paritarioak ahobatez onartzen badu, Hitzarmen edo akordio kolektiboetan ezartzen diren berezitasunak Akordio honen parte izatera pasatuko dira

PROZEDUREN GAINENKO XEDAPEN OROKORRAK

7. Prozedura motak

Adiskidetze, bitartekotza eta arbitraje prozedurak eratzen dira. Adiskidetzearen kasuan, adiskidetzaillea saiatzen da alderdi biak akordio batera hel daitezen gatazka ebazteko. Bitartekotzaren kasuan, bitartekoa ahalegintzen da alderdiak akordio batera hel daitezen, eta lortzen ez badu, proposamen formal bat aurkezten die, alderdi bakoitzak onartu edo gaitzetsi dezan. Arbitrajearen kasuan, akordioa lortzen ez bada, arbitroak nahitaez bete behar den epaia ematen du, zuzenbidean edo ekitatean oinarritua, eta horrek erabakitzen du gatazka.

8. Prozeduraren gaiak

Honakoetan aplikatuko dira prozedurak:

- Edozelako gatazka kolektiboetan:
 - estatuko arauak edo hitzarmen edo itun kolektibokoak interpretatu edo aplikatzeari dagozkion gatazketan, edozelako eraginkortasuna dutela ere
 - enpresako erabaki edo praktikei dagozkien gatazketan
 - interes gatazketan (hitzarmen edo akordioen negoziazioetan adostasunik ez dagoenean)
- Lan arloko legerian edo negoziazio kolektiboan ezarritako kontsultaldietan sortzen diren desadostasunetan.

9. Prozedurako alderdiak

Zilegi izango dute prozeduretan parte hartzea gatazkaren eremu berbereko negoziazio kolektibo batean parte hartzea zilegi zaien pertsonak. Beraz, prozedura bakoitzean alderdi bakoitza osatuko dute gatazka eragindako langile eta enpresarien ordezkari gisa berorretan parte hartzen duten eta horretarako legitimizatuta dauden pertsonak.

Auzibidean planteatzen diren gatazkei dagokienez, bide horretan prozedurarako legitimazioa duen edozein subjektuk eskatu ahal izango du adiskidetze edo bitartekotza eta berorretan parte hartu.

10. Auzibidera jo aurreko betekizuna betetzea

Akordio honen arabera burutzen edo saiatzen diren adiskidetze edo bitartekotzek ordezkartuko dute indarrean den Lan Prozedurari buruzko Legeko 154.1. artikulua arabera gatazka kolektibo batean prozedura judizialera jo aurretik burutu behar zen betekizuna. Aipatutako betekizuna zera zen, administrazio zerbitzu baten aurrean adiskidetze saio bat egitea.

11. Adiskidetzailleak, bitartekoak eta arbitroak

Adiskidetzaille-bitartekoen elkargo bat eta arbitroen elkargo bat eratuko da prozedura hauetan aritzeko. Elkargook erakunde sinatzaileek ahobatez onartu eta izendatutako profesionalak osatuko dituzte.

Profesionalen zerrendak urte bakoitzeko urtarrilaren lehenean eguneratuko dira, batzorde paritarioaren ahobateko akordioaz. Edozelan ere, profesional bakoitzaren izendapena indarrean egongo da izendapenaren egunetik zerrenda berriz eguneratu arte.

12. Prozeduren kudeaketa

Akordioa sinatzen duten erakundeen eskakizunari jarraituz, Lan Harremanen Kontseiluak kudeatuko ditu prozedurak, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde historiko guztietan dauzkan egoitzen bitartez.

PROZEDURAK HASTEKO ESKAERA

13. Hitzarmen edo akordio kolektiboetako batzorde paritarioen aurretiko jarduna

Prozedura hauek eskatu baino lehen, hitzarmen edo akordio kolektibo baten interpretazio edo aplikaziotik sortutako gatazka kolektibo guztiak hitzarmen edo akordio horretako batzorde paritariori aurkeztuko zaizkio, baldin eta batzorde hori benetan jardunean badago. Kontseiluko egoitzaren arduradunak ez badauka batzordea benetan jardunean dagoen berririk, eskaera tramitatuko da eskatzaileak adierazten duenean batzordea ez dagoela jardunean, eta gatazkak ukitutako langile eta enpresarien gehiengoa kontra agertzen ez bada.

Baldintza hori betetakotzat joko da batzorde paritarioari eskaera aurkeztu eta handik hamabost egunera gatazka ebatzita ez dagoenean.

14. Prozedurak hasteko eskaera

Eskaera dokumentu arautuan aurkeztuko da Kontseiluaren kasuan kasuko egoitzan. Legitimatuta dagoen edozein pertsonak aurkeztu ahalko du, berak zuzenean edo Akordio hau sinatzen duten erakundeen bitartez. Arbitraje eskaeran ageri beharko da gatazkak ukitutako langile eta enpresarien gehienegoa ordezkatzeko dutenen adostasuna.

PROZEDURAK ZELAN GAUZATU

15. Adiskidetzaren edo bitartekotzaren hasiera

Egoitzaren arduradunak adiskidetze ekitaldi batera deituko die subjektu legitimatuei luze barik. Ekitaldian arduraduna saiatuko da alderdi biak ados jar daitezten. Hori berehalakoan lortzen ez bada, gatazkak ukitutako langile eta enpresari gehienaren ordezkariak ados jarrita, prozedurak aurrera jarraitzea erabaki ahal izango dute, dela adiskidetzaren bidez, dela bitartekotzaz. Hori halan bada, adiskidetzaille edo bitarteko bat izendatuko dute berehala.

Bai eskatzaileak eta bai beste alderdiak nahitaezkoa izango dute aipatutako ekitaldira joatea. Eskatzailea justifikaziorik gabe joango ez balitz, eskaera artxibatu egingo litzateke. Alderdi bateko edo besteko gehiengoaren ordezkariak joango ez balira, edo prozedurarekin jarraitzeko ados jarri ezin balira, adiskidetze saioa egin dela baina ezin izan dela burutu ulertuko da. Horrekin beteta geratuko litzateke indarrean den Lan Prozedurari buruzko Legeko 154.1. artikuluan eskatzen den betekizuna, eta horren ziurtagiria egingo litzateke.

16. Bitartekotza bezala jarraitu beharra

Zenbait kasutan, bi alderdietako bateko gehiengoaren ordezkariak hala nahi badute, prozedurak aurrera jarraituko du, nahiz eta beste alderdiak parte hartu ez. Hauek dira kasu horiek:

- Hitzarmen edo akordio kolektibo batek hala ezarrita daukanean, berorretan aipatzen diren gatazka kolektiboei buruz.
- Hitzarmen kolektibo baten negoziazioa hasi zenetik sei hilabete igaro direnean akordiorik lortu gabe, baldin eta azken hilabete bietan negoziatorik izan ez bada,

Prozedurak bitartekotza gisa jarraituko du.

Bere alderdiko gehiengoaren onarpena lortzen ez duen eskatzaileari aurreko puntuan aipatutako ziurtagiria emango zaio

17. Arbitrajearen hasiera

Arbitraje eskaera behar den eran aurkeztuta, egoitzaren arduradunak legitimatuta dauden subjektuei deituko die prozeduran parte hartzea eskaintzeko, 9. atalean adierazitakoaren arabera. Ondoren, arbitroa izendatuko da, baldin eta eskaera orrian dagoeneko izendatuta ez balego.

18. Adiskidetzaille, bitarteko edo arbitroaren izendapena

Alderdi bakoitzetik parte hartzen dutenen gehiengoak izendatuko dituzte. Ados jarriko ez balira, profesionalen zerrenda inpare bat aurkeztuko litzaieke. Alderdi bateko eta bestekoak izenak kentzen joango lirarteke txandaka, harik eta izen bakarra geratu arte.

19. Aholkulariak adiskidetze prozeduran

Prozedurako alderdi bakoitzaren gehiengoak hala erabakitzen badu, pertsona bi izendatu ahalko dira adiskidetzaillearen aholkulari aritzeko. Bata Akordio hau sinatzen duen enpresarien erakundeak izendatuko dute, eta bestea, berriz, gatazkaren alderdi sozialekoek ahobatez aukeratzen duten sindikatu sinatzaileak izendatuko du. Hori guztia gorabehera, partaide bakoitzak bere aholkularia eduki ahal izango du.

20. Prozeduretako zereginak

Adiskidetzaille, bitarteko edo arbitroa lanean hasiko da izendatua izan bezain laster. Alderdiek eskatuta edo bere kabuz, egoki deritzen jarduerak burutuko ditu, eta bere zeregina betetzeko beharrezko iruditzen zaion informazioa bidluko du.

Edozelan ere, partaide guztiek prozeduran entzunak izateko daukaten eskubidea bermatuko da, bai eta berdintasun eta kontra egiteko printzipioak ere, babesgabeziarik gertatzen ez dela.

21. Jardunen gehienezko epeak

Aurreko puntuan aipatutako adiskidetze eta arbitraje jardunak gehienez ere 15 egun baliouduneko epean amaitu beharko dira, eta bitartekotza jardunak, berriz, 20 egun baliouduneko epean gehien dela, profesionala izendatzen denetik kontatzen hasita. Egoitzaren arduradunak epearen amaieraren berri emango die profesionalari eta parte hartzaileei. Hortik aurrera, bitarteko edo arbitroak 7 egun baliodun izango ditu bitartekotza proposamena aurkezteko edo arbitraje epaia emateko.

PROZEDUREN AMAIERA

22. Bat etortzearen bidez amaitzea

Prozedurak bat etortzearen bidez amaituko dira prozedurako alderdi bakoitzeko gehiengoak akordio batera iristen direnean. Hori gertatzean halaxe jasoko da aktan.

23. Adiskidetzearen amaiera

Era berean, adiskidetzea amaituko da adiskidetzailleak adierazten duenean ezinezkoa dela alderdiak bat etortzea, edo 21. puntuan jardunetarako adierazitako epea bukatzen denean.

Edozein unetan adiskidetzailleak proposatu ahal izango die alderdiei, edo alderdiek berari hala eskatu, adiskidetzea amai dadila adiskidetzailleak bitartekotza proposamen bat eginez edo arbitraje epai bat emanez, 24. eta 25. puntuetan esandako baldintzetan. Prozedura bitartekotza proposamen batez bukatu ahal izateko, beharrezkoa izango da alderdi bakoitzaren gehiengoaren onespena. Proposamen hori arbitraje bihur dadin, beharrezkoa izango da gatazkak erangindako langileen eta enpresarioen gehiengoa ordezkatzeko dutenen baimena izatea.

24. Bitartekotzaren amaiera

Bat etorri ezina suertatuko balitz, bitartekoak proposamen arrazoitua egingo du 21. puntuan adierazitako epean.

Alderdi bakoitzak lurralde egoitzari adieraziko dio idatziz proposamena orotara onartzen edo gaitzesten duen. Edozein kasutan, proposamena jakinarazten den egunaren biharamunetik hurrengo bost egun baliodunen barruan gaitzespen idatzirik aurkezten ez dutenek proposamena onartu egin dutela suposatuko da, kontrako frogara barik. Alderdi bakoitzeko partaideen gehiengoek onartzen badute, proposamena behartze indarrekotzat joko da.

Era berean, bitartekoak edo alderdiek proposatu ahal izango dute bitartekotza amaitzea bitartekoak arbitraje epaia emanez, hurrengo puntuan adierazten diren baldintzetan. Horretarako, gatazkak ukitutako langileen eta enpresariaren gehiengoa ordezkatzeko dutenen onespena beharko da.

Bestalde, bitartekotzak amaiera aurreratua izango du alderdiek bertan behera uzten dutenean modu arrazoituan, bitartekoaren iritziz aurrera jarraitzea alferrekoa delako. Era berean, bitartekotza automatikoki amaituko da berori bideratzen ari den bitartean grebak hasten badira, salbu eta alderdi bietako partaideen gehiengoek aurrera jarraitzea erabakitzen dutenean.

25. Arbitrajearen amaiera

Bat etortzerik lortu ez bada, arbitroak arbitraje epai arrazoitua emango du 21. puntuan adierazitako epean.

26. Arbitraje epaiaren aurreko barruko errekurtsioa

Prozeduran parte hartzen duten subjektu kolektiboek epaiaren kontrako errekurtsioa jarri ahal izango dute hiru arbitroko epaimahai baten aurrean, arau legaletan inpugnazio judizialerako onartuta dauden arrazoi berberengatik. Inpugnazio judiziala egin baino lehenago, nahitaezkoa izango da errekurtsio hau jartzea.

Errekurtsioa Kontseiluaren lurralde egoitzaren aurrean aurkeztuko da, epaia jakinarazi eta hurrengo bost egun baliodunen barruan. Alderdiak ahobatez ados jarrita, edo, hori lortu ezean, lurralde egoitzan egingo den zozketaren bidez, hiru arbitroak izendatuko dira, prozeduran parte hartu duena kanpoan utzita. Arbitrook alderdiei entzuzko diete eta arbitraje ebazpen bat emango dute, hori guztia Akordio honetako 21. puntuak arbitrajerako ezarrita dituen epean barruan. Ebazpenak aurreko epaia sendotu edo aldatuko du. Ebazpena eman artean, bestalde, aurreko epaia ez da betetzen hasiko.

27. Bitartekotza proposamena eta arbitraje epaia edo ebazpena argitzea

Bitartekotza proposamena edo arbitraje epaia edo ebazpena jakinarazi eta hurrengo 3 egun baliodunen barruan, parte hartzaileek akats materialak edo egitezkoak eta akats aritmetikoak zuzentzeko eskatu ahal izango dute, edo, kontzeptu ilunen bat balego, berori argitzeko. Orduan proposamena onartu edo gaitzesteko epea edo epaia errekurriztekoa eten egingo dira.

Argitzea edo akatsen zuzenketa 3 egun balioduneko epean egin beharko da. Etenda utzitako epetik geratzen diren egunak argitze edo zuzentzen jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik jarraituko dira kontatzen.

PROZEDUREN ONDORIOAK

28. Kontsultaldietako desadostasunak

Adiskidetze edo bitartekotza eskaerak egiten direnean, legetako arauetan edo negoziazio kolektiboen bidez ezarrita dauden kontsultaldiak luzatuko dira, prozedura amaitu arte. Luzatze hori gertatuko da alderdi bakoitzeko interesatuen gehiengo ordezkatzen dutenek prozedura onartzen dutenean, edo alderdi bateko gehiengoaren ordezkarien borondatea nahikoa denenean horretarako, Akordioko 16. puntuaren arabera.

29. Gatazka ebazteko tresnen eraginkortasuna

Bat etortzeek, onartutako bitartekotza proposamenei eta arbitraje epai edo ebazpenek eraginkortasun orokorreko hitzarmen kolektiboaren ondorio berberak sortuko dituzte, baldin eta prozeduran parte hartu dutenek legitimaziorako baldintzak betetzen bazituzten eta legeek eskatutako gehiengoaren arabera hartu badituzte akordioak. Kasu horretan erregistratzera eta modu ofizialean argitaratzera bidaliko dira, legearen arabera hala dagokionean.

Hala ez bada, akordioa hartu duten pertsonak eta eurok ordezkatutakoak behartzeko indarra izango dute.

Xedapen gehigarria

Akordioa ofizialki argitaratzen denetik eta bi hilabetera jarriko da indarrean. Akordio honetako 10. artikuluan aipatzen den bezala, bitartekotza edo adiskidetze prozedurak administrazio zerbitzuaren aurreko adiskidetze saioa ordezkatzeak eragina izango du data horretatik aurrera aurkezten diren eskaera guztietan.

Azken xedapena

Indargabetuta eta ordezkatuta geratzen dira GEP II-Gatazkak Ebazteko Borondatezko Prozedurei buruzko Konfederazio arteko Akordioak (1994.4.14an berrikusitako testua).

Sexista ez den hizkera

Akordio hau sinatzen dutenak ondo jabetuta daude hizkera moduek ez dutela ilundu behar, ezta nahigabeen ere, emakumeek berdintasun egoera batean izan behar duten presentzia. Hori dela eta, horretan ahalegindu dira dokumentu hau idaztean. Alabaina, zaila da hori erabat lortzea testua ulertu eta aplikatzea gaitz egingo duen konplexutasuna ere erantsi barik. Ondorioz, sinatzaileek argi eta garbi adierazi nahi dute izaera edo jardun bat adierazteko erabiltzen diren hitz guztiak, hala nola enpresari, adiskidetzaille, bitarteko edo arbitroa, sexu bietako pertsonak adierazteko erabili direla testuan.

ERANSKINA: APLIKAZIO ARAUAK

1. Prozeduren kudeaketa. Lan Harremanen Kontseiluaren lurralde egoitzak

Egoitzek idazkiak jaso eta horiei buruz erabakiko dute, deialdiak eta jakinarazpenak egingo dituzte, sortzen den dokumentazioa erregistratuko dute, jardueretan gertatutakoaren eta prozeduren emaitzen ziurtagiriak egingo dituzte, eta, oro har, prozedurak errazteko eta aurrera joateko behar diren eginkizun guztiak beteko dituzte.

2. Eskaera orriaren edukia

Eskaera orri arautu bi egongo dira, bata adiskidetze edo bitartekotzarako, eta beste arbitrajera. Bietan eduki hauek jaso beharko dira:

- Eztabaidagaia zein den.
- Gatazkak ukitzen duen kolektiboa eta gatazkaren lurralde-eremua.
- Legitimatuta dauden subjektuak nortzuk diren.

Adiskidetze edo bitartekotzako orrian, gainera, alderdi bakarreko interesatu gehien borondatez bitartekotza aurrera eramatea baimentzen duen egoera bat edo bestea gertatzen dela azalduko da.

Arbitrajera eskaerak eduki berezia izango du:

- Zuzenbidezko arbitrajea edo ekita- tezko arbitrajea aukeratzen den.
- Zeintzuk diren arbitroari aurkeztu gura zaizkion gai zehatzak.
- Arbitroa nor izango den, edo, bestela, lurralde egoitzaren arduradunarekin biltzean izendatzen den arbitroaren onarpena.
- Deituta dauden edo egiten ari diren grebak edo ugazaben itxierak bertan behera geratzen direla ziur- tatzten duen adierazpena.
- Arbitroari aurkeztuko zaizkion gaiak ebazteko bide judizial edo administratibora jotzeko ezintasunaren onarpena, eta arbitraje epaia edo ebazpena behartze indarrekoa eta bete beharrekoa dela ziurtatzen duen adierazpena.

3. Alderdi bakarreko interesatuen gehiengoa ordezkatzan dutenen borondatez burutzen den bitartekotza

Akordio 16. puntuaren arabera prozedurak bitartekotza bezala jarraitzen duenean alderdi bakarreko interesatuen gehiengoaren borondatez, bitartekoa egoitzaren arduradunak izendatuko du zozketaz. Tramite bakoitzean subjektu legitimatu guztiei deituko zaie, prozeduran parte hartzea erabaki zein ez, euren interesak babestu ahal izateko.

4. Prozeduretako gehienezko epeak luzatu, laburtu eta etetea

Prozedurako alderdi bietako gehiengoaren akordioz, epeak euren berezko iraupenaren erdian luzatu ahal izango dira. Era berean, adiskidetzaille, bitarteko edo arbitroarekin ados jarrita, laburtu ere egin ahal izango dira epeak.

Prozedurak hala eskatzen duen salbuespenezko kasuetan, alderdiek epea etetea eskatu ahal izango diote lurralde egoitzaren arduradunari. Etete hori kasu horretarako baldintza konkretuekin erabakiko da.

5. Erakunde sinatzaileentzako informazioa

Kontseiluaren egoitzek eskatzen diren prozeduren berri emango diete Akordio honen sinatzaileei, bai eta prozeduren azken emaitzen berri ere.

6. Egun baliiodunak

Prozeduren epeak zenbatzerakoan, lanegun guztiak joko dira egun baliioduntzat, larunbatak izan ezik.

Akordioaren 13. puntuaren ezarritako hamabost eguneko epea hitzarmen edo itun kolektiboetako batzorde paritarioen aurretiazko jarduketaren kasuan ere modu berean kontatuko da.

7. Adiskidetze saioaren garapena¹

Adiskidetze edo bitartekotza prozedura adiskidetze saioan Egoitzaren arduradunaren aurrean alderdi bakoitzaren gehiengoa aurrean delarik hasita, arduradunaren jarduketa, adostasuna ekitaldi horretan bertan lortzea ezinezkoa dela ohartzen denean amaituko da. Alderdietako bat prozedurak Precoren 11. Puntuari aipatzen den elkargoko adiskidetzailerik edo bitartekari baten parte hartzearen bidez aurrera egin dezan prest ez balego, aktan adiskidetze saioa adostasunik gabe amaitu dela Lan Prozedurari buruzko Legearen 154.1 artikuluan aurreikusten den eskakizuna bete dela egiaztatuko da.

8. Hitzarmen kolektiboek eurek dakartzaten prozedurak²

Hitzarmen kolektibo batek hitzarmena interpretatzeari edo aplikatzeari buruzko gatazketarako berezko prozedura bat ezartzen badu, eta prozedura horretan hitzarmen horretako batzorde paritarioaren jardura aurreikusten ez bada, prozedura hura aplikatuz gero, Precoren 13. puntuari aurreikusten den eskakizuna beteta egongo da.

9.- Hitzarmen kolektiboan ezarritako baldintzetan funtsezko aldaketei eta soldatak aplikatu ezinaren gaineko arbitrajeari dagokienez, Langileen Estatutuko 85.3.c artikuluan oinarritutako hitzarmen kolektiboaren klausulak aplikatzea³.

- 1) Parte batek beste partearen adostasunik gabe arbitraje-prozedura bat eskatzen bada, zehazki, LEko 85.3.c artikuluan zehaztu kasuetan, Preco-ko prozedurak egokitzea onartu duen hitzarmen kolektibo baten oinarriturikoa bada; bada, arbitraje hori alde bakarreko borondatez gauzatzeko, legezko manuz burutuko da, betiere Preco-ko arau komunen arabera, eta honako zehaztapenekin bat etorriaz:
- 2) Parte eskatzailea deitutako hitzordurako agertzen ez bada, edo arbitraje peko arazoaren gainean akordiorik lortzen ez bada, edo, orobat, arbitrajeko laudoa zein irizpideri egokitu behar diren gainean (ekitatea edo eskubidea) edo arbitroaren identitatearen gainean, eta kasu horietarako aurreikuspenik ez bada hitzarmen kolektiboak; bada, gorabehera guztiok honako arau hauekin bat konkretatuko dira:
 - a) Aipatu legeko 41.6 eta 82.3 artikuluetan eskatutako kontsulta-eparearen hasieran pertsonalaren ordezkariari planteatutako uzia, enpresarena, izango da arbitrajepean jarritako arazoa; eta uzia habilitatzen duten legezko oinarrien gainekoa izango da laudoa, eta bai xedapen horien arabera parteek negoziatu behar dituzten alderdien gainekoa ere:

¹ Testu hau Precoren Batzorde Paritarioaren erabakiz gehitu zen eta 2002ko ekainaren 21eko EHAaren 117. zenbakian argitaratu zen.

² Testu hau Precoren Batzorde Paritarioaren erabakiz gehitu zen eta 2002ko ekainaren 21eko EHAaren 117. zenbakian argitaratu zen.

³ Testu hau Precoren Batzorde Paritarioaren erabakiz gehitu zen eta 2012ko urtarrilaren 27ko EHAaren 19. zenbakian argitaratu.

- Hitzarmen bateko edo bere soldatak aplikaezinak izateko baldintzetan funtsezko aldaketa justifikatzeko legezko kausarik egotea.
 - Funtsezko aldaketako materia bat etortzea legez onar daitezkeenekin.
 - Soldatak aplikaezinak diren aldiaren edo neurri aldatzailearen indarraldiaren gehienezko epea.
 - Aplikatu ezin denean langileek jasoko behar duten ordainsari zehatza.
 - Hitzarmeneko soldata-baldintzak errekuaratzeko eta, kasua bada, soldatak aplikaezinak izatea eragiten duten kausak kentzeko, progresiozko konbergentziaren programazioa.
- b) Goragoko zerrendako lehen bi aspektuei dagokienez zuzenbidearekin bat eman beharko da arbitrajeko laudoa; betiere, legeak exijitutako zirkunstantziak aztertze beharrezko diskrezionalitatearen aurka egin gabe; eta horrekiko ekitatez tratatuko dira gainontzekoak.
- c) Obligazioa izanik, parte eskatzailea ez dena ez bada azaltzen arbitroa izendatzeko ekitaldira, edo presente izanik Preco-ren 18. puntuari aurreikusitako moduan izendatzen ez bada kolaboratzen, azaldu direnen artean egindako zozketaz egingo du izendapena lurralde-zerbitzuak; eta hartarako, Preco-ko arbitroen elkargoan integratutako profesionalen zerrenda erabiliko da.

10.- Kontsulta-epeetako ordezkapen-prozedurak praktikatzeko epeak⁴.

Langileen Estatutuaren 40.2, 41.4 eta 51.4 artikuluetan aurreikusitako kasuetan, enpresaren eta pertsonalaren ordezkariak -Preco-ren bitartekaritza edo arbitrajeaz- erabakitzen badute kontsulta-epea adiskidetzeko-prozedura batez ordezte, prozedura hori praktikatzeko epea egokitu egingo zaio -legezko indarrez- kontsulta-aldiari dagokion legezko gehienezko iraupenari.

Hartarako, parte bakoitzarekin baiezkoarekin bitartekaria, adostailea edo arbitroa izendatzen bada eskabidean, hori aurkeztu eta hurrengo egunetik hara hasiko da zenbaketa; edo, halakorik ezean, izendapena egin eta hurrengo egunetik hara, betiere epeak adostasunez luzatzeko parteek duten ahalmena eragotzi gabe.

11.- Pertsonalaren legezko ordezkariak ez dela-eta, kontsulta-aldietarako ordezkariak espezifikoak⁵.

Langileen Estatutuaren 40., 41., 51. eta 82.3 artikuluetan oinarriturik, solaskide gisa pertsonalaren ordezkariak espezifiko batek badihardu, lege indarrez onartuko da Preco-ko prozeduretan parte legetimatu gisa, hain justu ere prozedura horiek kontsulta-aldia ordezteko hasi direlako edo aldi hori adostasunik gabe bukatu delako.

12.- Elementu ekonomiko edo teknikoak gatazkei lotutako prozedurak praktikan jartzea⁶.

- 1) Elementu teknikoak eta ekonomikoak kontuan izan behar diren gatazken gaineko prozedurak izapideak egiteko onartuko dira, noiz eta gainontzeko

⁴ Testu hau Precoren Batzorde Paritarioaren erabakiz gehitu zen eta 2012ko urtarrilaren 27ko EHAaren 19. zenbakian argitaratu.

⁵ Testu hau Precoren Batzorde Paritarioaren erabakiz gehitu zen eta 2012ko urtarrilaren 27ko EHAaren 19. zenbakian argitaratu.

⁶ Testu hau Precoren Batzorde Paritarioaren erabakiz gehitu zen eta 2012ko urtarrilaren 27ko EHAaren 19. zenbakian argitaratu.

- gatazken gaineko prozedura berberen kasuetan bakarrik. Elementu horiek honako hauek izan daitezke: hitzarmenetako soldatak aplikatu ezina; zirkunstantzia ekonomikoek, teknikoek edo ekoizpenekoek justifikatzea honako hauek: hitzarmen kolektiboak edo lan-baldintzak aldatzea; hitzarmen edo itun kolektiboak negoziatzea; neurtutako produktibitate-sistemak; postuak baloratzeko sistemak; arrisku, neke edo toxikotasun zirkunstantziak neurtzea; laneko osasun eta segurtasunerako neurriak betetzera, etab.
- 2) Prozedura horiek Preco-ko araua orokorrak eraentzen ditu (20. puntua), zeinetan honako hau esaten baita: «parte batek eskatuta edo ekimen propioz, profesionalak egoki iritzitako jarduerak burutuko ditu, eta funtzioak burutzeko beharrezko informazioa lortuko du» Jakina, parteetatik lortuko du; izan ere, eurei baitagokie alderdi tekniko edo ekonomikoen gaineko baieztapenak -egoki deritzoten legez- demostratzea; esate baterako, parte batek eskatuta -eta bere kargura- adituek emandako txostena aurkeztuaz
 - 3) Hala ere, parteek halako frogarik egin ala ez, Kontseiluak pertsona aditu baten laguntza -aipatu materien gainekoa- eman ohi die adostaile, bitartekari edo arbitroei. Hasiera baten, profesionalarentzako informazio orientatzailea da, eta ez froga-elementu bat, zeinaren gainean parteek erabaki bat hartu behar duten, salbu eta arbitraje bat eta laudoa (denborak eta beste trebetasun batzuk neurtuaz) oinarritzeko fundamentu objektibo bat ezartzeko aditu-jarduera izan Kasu horretan, defentsarako eskubideak beharrezko du parteek txostena ezagutzea eta haren gainean alegazioak egin ahal izatea.
 - 4) Kasu horietan (Kontseiluko profesionalak eskatutako txostena), kostuari Kontseiluak berak egin beharko dio aurre; hortaz, aurrekontu publikoen mugak direla-eta, neurri batzuen barruan eskaintzen dira honako hauek:
 - a) Oro har, aholkularitzako espezializatuko etxe batek emandako aholkularitza; betiere, jarraian aipatutakoak posible egiteko baldintzak hitzartuaz etxe horrekin: interbentzioa zehaztea; aurrekontu bat azkar ematea; Kontseiluak aurre egin diezaiekeen zenbatekoetara egokitzea aurrekontua, eta prozedura gauzatzeko beharrezko epeen barruan exekutatzea aurrekontua.
 - b) Eta partikularki, interbentzioaren mugaketa hauxe da: arau orokor legez, datuak jasotzeko epea egun batetik ez pasatzea, eta, gehienez ere, txostena emateko gaintiko beste egun batetik. Hartarako, alderdi teknikoen eta ekonomikoen dimentsioa garaiz aztertu daitekeenetik ateratzen bada, praktika hauxe izango da: posible bada aspektu esanguratsu bat (lanpostua, produkzio-linea, etab.) isolatzea, eta horrekin beharrezko neurketa, egiaztapen eta eragiketak gauzatzea, hain justu ere hortik ateratzen dena baliagarria izan dadin honako hauen premia aurreikusuteko: neurketa zuzendu behar den ala ez, balorazioa, zirkunstantziak balioestea, etab; betiere guzti horien bitartez ikusteko gatazka. Interbentzio teknikoa, gehienez ere, bi egunetan egitekoa izango da, eta parteek onartu beharko dute, eta aktan jasoko da.
 - c) Txostena gauzatzeko, arazoa mugatzeko premia funtsezkoa da, hain justu ere arlo teknikoan eta ekonomikoan aholkuak jasotzeko eskabidea - profesionalak egindakoa- onar dezan Kontseiluak. Eta hala, aholkularitza jasotzeko, honako baldintza bete beharko dute parteek: aholkularitza-etxeak aldeztetik aurkeztutako aurrekontuaren guztizkoaren eta bi eguni dagokien zenbatekoaren arteko diferentziari aurre egitea, eurena egitea.

- 5) Guztiarekin ere, profesionalak, besteak beste, honako hauetan ez baditu informazio-baliabide beharrezkoak: Kontseiluak eman ezin ditu eman; parteek ez dute onartzen interbentzioa mugatzea; euren jarrerak oinarritzeko txosten teknikoak eta ekonomikoak ez dituzte aurkezten parteek. Bada, kasu horretan, arbitrajeko laudo bat edo bitartekaritza-proposamen bat funtsaturik ezin denez formulatu, prozedura itxi egin daiteke.

13.- Afiliazioa egiaztatzeako prozedurak gauzatzea⁷.

Hitzarmen edo itun kolektibo baten klausula bat aplikatzeari lotutako afiliazio-mailak egiaztatzeako eskabideak onartu egingo dira.

Esklusiboki parte eskatzaileak eta enpresako zuzendaritzak deituko ditu, zeintzuk adiskidetze-akta bat sinatuko baitute Preco-ko gainontzeko prozeduretan legez profesionala izendatuaz, eta akta horretan, aukeratutako profesionalak eman dezan ziurtagiria aldeztatik onartzen dela jaso behako da.

Enpresaren zuzendaritzak langileen izenekin (NAN barne dela) zerrenda eman beharko dio profesionalari; baina ezin izango du ezagutu parte eskatzaileak profesionalari ematen dion dokumentazioa.

Profesionalak erabiliko duen prozedurak zehazki errespetatu beharko du izaera pertsonaleko datuak babesteari buruzko legeria (abendua 13ko 15/1999 Lege Organikoa); izan ere, legeri horretan, besteak beste, «bereziki babestutako datuen artean» afiliazioa sindikalari buruzko datuak daude (7.2 artikulua), eta horrek eragotzi egiten du, eragiten zaionak berariaz baimendu gabe, hirugarren bati komunikatzea datu horiek.

Baimenik gabeko komunikaziorik ez egiteko, eskatzaileari bi aukera eskainiko zaizkio: NAN duela, pertsona afiliatu bakoitza profesionalaren aurrean agertzea (enpresan, sindikatuaren lokalean edo beste leku baten), edo profesionalari izenak dituen zerrenda bat entregatzea, non afiliatu bakoitzak idatzi behar duen (izenaz batera) egun hartako data -sinadura ere bertan dela-, horretaz gain, NANaren fotokopia bat aurkeztu beharko du, sinadura erkatzeko.

Profesionalak honako hau egiaztatu du: delako enpresako sindikatu bateko afiliatuen kopuru gutxienekoa -hitzarmenean ezarritakoa- gainditzen den ala ez; ez da beharrezko beste zehaztapenik.

Preco-ko profesionalen elkargoko kide legez derrigorrez zaindu behar duen konfidentzialtasunari eusteko konpromisoa hartzen du profesionalak, eta bai prozedura behin betiko amaitzen denean zerrendak eta fotokopiak suntsitzekoa ere.

14. Hitzarmen kolektiboetako menpekotasun klausulen bidez ezarritako arbitrajeak⁸

1. Arbitrajea praktikatzea, alderdietako baten gehiengoak hala eskatuta Aplikagarria den enpresako edo enpresa taldeko hitzarmen kolektiboan onartutako arbitrajearen menpekotasun konpromisoa dagoenean, mota guztietako gatazka kolektiboetan edo kontsulta aldiko desadostasunetan

⁷ Testu hau Precoren Batzorde Paritarioaren erabakiz gehitu zen eta 2012ko urtarrilaren 27ko EHAaren 19. zenbakian argitaratu.

⁸ Testu hau Precoren Batzorde Paritarioaren erabakiz gehitu zen eta 2016ko uztailaren 4ko EHAaren 126. zenbakian argitaratu.

arbitraje prozedura alderdietako bakarraren gehiengoak hala eskatuta burutuko da.

Halaber, hitzarmen kolektibo batean, hitzarmenaren eremua edozein delarik ere, batzorde paritarioaren barruan dauden gatazkak edo desadostasunak direla-eta, arbitrajearen menpekotasun konpromisoa dagoenean, prozedura alderdietako bakarraren gehiengoak hala eskatuta garatuko da.

Precoko zerbitzuek, hitzarmeneko klausula aurreko bi irizpideetako baten arabera egokitzen bada, eskaera hauek tramitatzeko onartuko dituzte eta klausula Batzorde Paritarioak onartutzat emango da, Precoko 6. puntuaren ondoretarako.

Konpromisoa dakarren hitzarmen kolektiboa enpresaren gaineko eremuko hitzarmena denean, arbitrajea alderdietako baten gehiengoak hala nahita hasi ahal izateko, beharrezkoa izango da konpromiso hori aurretiaz Lanbide arteko Akordio honen Batzorde Paritarioak homologaturik egotea.

2. Arbitrajeko alderdiak

Alderdi izatea mota guztietako gatazka kolektiboetan Precoko 9. puntuaren arabera legitimatutako subjektuei dagokie, Langileen Estatutuko Legeko 87.1 artikulua aurreikusten duenez, atal sindikalek lehentasuna dutelarik. Kontsulta aldiko desadostasunetan kontsulta aldian esku hartu duten ordezkarietara dagokie eta hitzarmen kolektiboetako batzorde paritarioen barruan gertatzen direnetan, batzorde paritario hura osatzen duten ordezkarietara.

3. Arbitrajea praktikatzeko beharrezko zehaztapenak

Arbitrajea eskatu ez duen alderdia dei egin zaion elkarraldira ez badao, edo elkarraldian egonda, arbitrajearen mendean jartzen den gaiari buruz edo arbitraje laudoak aintzat hartu behar duen zuzenbide ala ekitatezko irizpideari buruz, edo arbitroaren nortasunari buruzko akordiorik lortzen ez bada eta hitzarmen kolektiboak halako kasuetarako aurreikuspenik ez badu, gauza hauek ondorengo arauen arabera zehaztuko dira:

- a) Gatazka kolektiboetan arbitrajearen mendean jarritako gaia arbitraje eskaeran deskribaturiko desadostasuna izango da. Kontsulta aldiko desadostasunetan, kontsulta aldiaren hasieran enpresaburuen alderdiak pertsonalaren ordezkarietara planteatutako uzia izango da. Batzorde paritarioetako desadostasunetan, batzordeari planteatu zaion gaia izango da, batzordearen erabakia eskatu duenak adierazi duen moduan.
- b) Arbitroak zuzenbideko laudoa eman beharko du; hala ere, arbitroak behar duen hautazkotasun teknikoak izango du, enpresaburuen erabakiak hartzeko legeak eskatzen dituen inguruabarrak aztertzeko edo mota guztietako negoziazio kolektiboetan alderdien desadostasuna bateratzeko.
- c) Arbitrajea eskatu ez duen alderdia arbitroa izendatzeko ekitaldira ez badao edo, bertan egonda, Precoko 18. puntuan aurreikusitako moduan izendatzeko lankidetzarik ematen ez badu, lurraldeko zerbitzuak izendapena ekitaldian dauden aurreko zozketaz egingo du, horretarako prozedura tramitatu den lurraldeari dagokion Precoko arbitroen elkargoan dauden profesionalen zerrenda erabiliz.

4. Hitzarmen kolektiboetako baldintzak ez aplikatzeari buruzko arbitrajeak

Hitzarmen kolektiboetako klausuletan oinarritutako hitzarmena ez aplikatzearen gaineko desadostasunei buruzko arbitrajeak, Preco Lanbide arteko Akordio Eranskineko 9. aplikazio arauan ezarrita dauden arauak jarraiki tramitatu dira.

Era berean, Akordio hau Lan Agintaritzaren aurrean erregistratu eta gero dagokion aldizkari ofizialean argitaratzeko behar diren tramite guztiak egitea, Lan Harremanen Kontseiluko buru Tomas Arrieta Heras jaunaren eskuan uztea erabaki da.

**PRECOREN BATZORDE PARITARIOAK 2012KO URTARRILAREN 11KO
BILERAN HARTUTAKO ERABAKIA, PRECO ALDATZEKO, HITZARMEN
KOLEKTIBOAREN NEGOZIAZIOKO BLOKEOAGATIKO ARBITRAJEEI
BURUZKOA⁹**

Lehenengoa.– Langileen Estatutuko 86.3 artikulua eta 7/2011 Errege Lege Dekretuko lehenengo xedapen gehigarriak, lan gatazkak borondatez konpontzeko lanbide arteko akordioak indarraldia amaitu zaion hitzarmen kolektiboak berritzeko negoziazioak blokeatzen direnerako egokitu beharra dagoela, eta, xedatzen dutenez, PRECO lanbide arteko akordioaren Batzorde Paritarioak aho batez erabaki du, halako kasuetan aplikatzeko prozedurak, indarrean dagoen PRECO lanbide arteko Akordioak ezartzen dituenak izango direla eta indarraldia amaitua duten hitzarmen kolektiboen negoziazioen blokeorako arbitrajea, aurrera ere borondatezkoa izango dela, Akordioak arbitrajeetarako oro har ezartzen duenez.

Bigarrena.– Era berean, ebazpen hau Lan Agintaritzaren aurrean erregistratu eta gero dagokion aldizkari ofizialean argitaratzeko behar diren tramite guztiak, Lan Harremanen Kontseiluko lehendakari Tomas Arrieta Heras jaunaren eskuetan uztea ere erabaki da.

⁹ Precoren Batzorde Paritarioak onetsia, Langileen Estatutuko 86.3 artikulua ematen zuen lanbide arteko akordioa aldatzeko eskumena erabiliz; 2012.05.17ko EHAAren 96. Zenbakian argitaratu zen.